

EUSKALTZAINAK		
Urtea	Aulkia	Euskaltzaina
1918	1	R. M. Azkue (1918-1951) K. Mitxelena (1952-1988) I. Sarasola (1988)
	2	L. Eleizalde (1918-1923) K. Etxegarai (1923-1925) B. Etxegarai (1925-1956) Orixo (1957-1961) J. M. Satrustegi (1963)
	3	J. Urkijo (1918-1950) L. Villasante (1951)
	4	A. Kampion (1918-1937) J. C. Gerra (1941) I. M. Etxaide (1942-1962) P. Lartzabal (1963-1987) T. Peillen (1988)
1919	5	T. Agirre (1919-1920) S. Altube (1920-1963) [P. Zamarripa (1941-1950)*] [J. Gorostiaga (1950-1963)*] J. Gorostiaga (1963-1988) J. A. Arana Martija (1988)
	6	P. Bruzain (1919-1920) G. Lacombe (1920-1947) P. Lafitte (1949-1985) P. Xarriton (1985)
	7	J. B. Adema (1919)* M. Landerretxe (1919-1930) J. Elizalde (1930-1961) Iratzeder (1962)
	8	R. Intzagarai (1919-1947) M. Lekuona (1949-1987) J. M. Lekuona (1987)
	9	J. Agerre (1919-2020)* D. Intza (1920-1987) [E. Esparza (1941-1947)*] [Seminarario de Rojas (1947-1968)*] P. Zabaleta (1987)
	10	J. B. Eguzkitza (1919-1939) N. Oleaga (1941-1962) E. Erkiaga (1963)
	11	R. Olabide (1919-1942) [A. Irigarai (1941-1942)*] A. Irigarai (1942-1983) P. Salaburu (1984)
	12	P. Lhande (1919-1957) G. Eppherre (1958-1975) J. L. Davant (1975)
1941	13	J. Irigoien (1941-1947)* F. Krutwig (1947)
1949	14	M. R. Lafon (1949-1974) E. Larre (1974)
	15	J. Saint-Pierre (1949-1951) Oxobi (1951-1958) P. Narbaitz (1960-1962) J. Haritzelar (1962)
	16	L. Dassance (1949-1976) J. Hiriart-Urruti (1976-1990) B. Oihartzabal (1991)
1954	17	J. M. Lojendio (1954-1979) P. Altuna (1980)
	18	A. Arrue (1954-1976) E. Knörr (1977)
1963	19	L. Akesolo (1963)* J. San Martin (1964)
	20	A. Irigoien (1963)
1964	21	A. M. Labaien (1964)
	22	A. Zabala (1964)
1965	23	J. M. Barandiaran (1965-1991) M. Azkarate (1992)
1968	24	P. Iraizoz (1968-1980) F. Ondarra (1980)

Eusko Ikaskuntzak Oñatin 1918an antolatu zuen I. Biltzarrean sortu zen Euskaltzaindia eta irailaren 5ean lehen lau euskaltzainak izendatu ziren.

Hamabi euskaltzainen kopurua finkatzen zuen araudia onartu ondoren izendatuak (1919.eko irailaren 21ean).

Euskaltzaindiari emandako baimen eta dirulaguntzaren truke eta Bizkaiko Kultur Batzordeak inposatuta sortutako aulki "politikoa".

Krutwigek Euskaltzaindiaren aginduz eginiko eraberritze-proiektuaren ondoren sorturiko aulkiak (1949.eko irailaren 1ean).

1954.eko abuztuaren 27an onartutako erabakiaren arabera sortutako aulkiak.

[\*] gerra ondoren atzerriara joandakoaren ordekoa  
• aulkiari uko eginga  
# bileretara ez joateagatik, aulkia uztera behartua

zen eta Krutwig arduratu zen lan horretaz (1941). Nola hala, berriro lanean hasi ziren eta aldzakaria ere berrargitaratu zen; 1956.az gerotik eten gabe argitaratu da.

Euskararen arazoaren inguruan biltzarrek antolatu zituen; lehen Arantzazuko santutegian egin zen 1956an; gerotik, hainbat beste hainbat ere egin da. Guzti hauek, oihartzun handiena izan duena, Euskaltzaindiaren 50. urteurrena zela eta 1968an Arantzazun burututakoa izan da. Bertan hasi ziren hizkuntza idatziari buruzko arauak (ortografiari, sintaxiari, deklinabideari, aditzari eta lexikoari buruzkoak) eztabaidatu eta erabakiak hartzen.

Euskaltzaindiak bigarren etapa honi ekin zionetik, euskara eta euskal literaturaren alde lanean dihardu etengabe: literatur lehiaketak antolatuz, gramatikazko lehen urratsak bilduma prestatuz (EGLU), lexikografiako erabakiak hartuz, ortografia landuz, euskal alfabetizazioa bultzatuz, euskararako gaitasun-agiriak (EGA) banatuz, etab. Ikerketa-saillean honako batzorde hauek daude: Hiztegi-gintza-Batzordea (Orotariko Euskal Hiztegia, Lexikologi Erikipideen Finkapena eta Egungo Euskararen Bilketan-lan Sistematikoa deituriko azpibatzaordeak), Gramatika-Batzordea, Dialektologi Batzordea (Euskalkien Ikerketa eta Atlasgintza-azpibatzaordeak), Onomastika-Batzordea eta Literatur Batzordea (Herri-Literatura eta Literatur Ikerketa azpibatzaordeak). Jagon eta Egiturazko Batzordeak eta Batzorde suentsikorrek deiturikoekin osatzen da Euskaltzaindiaren organigrama.

**euskaltzale.** *iz.* eta *izond.* Euskara eta, oro har, euskal kulturarekiko zaletasuna edo atxikimendua erakusten duena. *Erdaldun euskaltzaleak. Euskalaria eta euskaltzalea.*

**Euskaltzaleak.** Euskal prentsa sustatu eta euskara eta euskal literatura hedatzeko sortutako elkartera (Donostia, 1927). Artikuluak, poesiak, nobelak, etab. argitaratu eta bilerak, ihardunaldiak, biltzarrek, etab. antolatu zituen.

**euskaltzaletasun.** *iz.* Euskaltzalea denaren nolokotasuna; euskararekiko atxikimendua eta zaletasuna. *Ea zertan datzan gure euskaltzaletasuna.*


**euskaltzale(tu).** *da/du ad.* Euskaltzale bihurtu.

**euskara.** *iz.* Euskal Herriko hizkuntza. ■ **euskara batu.** Euskaltzaindiak proposatutako euskara-eredu bateratua. || **euskara garbi.** 1. Euskara argia eta ulerterra. 2. Maileguzko hitz eta esapideak, hizkuntzan aspaldi txertatuak zein hartu berriak, bazterten dituen euskara-eredua, Sabino Aranaren eraginez indarra hartu zuena.

**ENTZ. Hizkuntz deskribapena.** Euskararen ezaugarri nagusiak honako hauek dira: euskal bokalisismoa gatzelaniaren antzekoa da, eta askoz urrunago dago frantsesetik; kontsonantismoan sistema fonologikoak bereizgarri gehiago ditu: txistukari gorretan, adibidez, gatzelaniak frikari bakarra /s/ eta frantsesak bi /s/ eta /ʃ/ bereizten dituzten bitartean, euskarak hiru bereizten baititu: /s/, /ʃ/ eta /ʃ/ (idatzita: 'z', 's' eta 'x', alegia), eta frikari horien pareko afrikatuak ere euskararen ezaugarri dira: /ts/, /tʃ/ eta /tʃ/. Euskal hitzak ezin dira bukatu m, p, b, d, g, x, h edo j-rekin, ez eta r-rekin hasi ere (lat. *regem* eusk. *erreg*), erdaretatik hartutako hitz berri-berriak izan ezik (ad. *radar*, *flap*). Artikulua atziki gisa ematen da, eta deklinabide bikoitza da (mugatu eta mugagabea), hamalau kasurekin, generorik gabe, eta izen eta adjektiboetan gisa berean erabilgarria da (*etxe/etxean*, *berri/berrian*). Hizkuntza indoeuroparretan ageri ez den kasu bat ere badu euskarak: ergatiboa, hau da, aditz iragankorretan ekintzaren egilerari dagokiona (-k: nor-k): *gizona dator*, baina *gizonak dakar*. Batez ere aditz laguntzailea aberats du euskarak, eta hor eta aditz trinkoan erreferentzianitza da sarritan adizkeren morfologia, inoiz hiru pertsona-marka biltzairano, aditz-errorekin eta marka sintaktikoekin batera. Badago, gainera, bigarren mailako *nor(k)* eta *norrentzat* genero-ezaugarriak ere. Sintaxiaren aldetik, euskara aski urrun dago inguruko hizkuntza erro-

rakuntza zituena, eta lan praktikoa burutuko zuen atala, hau da, gizarteko alor guztiara euskararen erabilera bultzatuko zuena. Hasierako urteetan konpondu behar izan zituen arazoan artean, euskara batuarena zegoen. Halaber, neologismo-ugalketa handiko garaia ziren eta berauek arautu eta onartu beharra zegoenez, lan horri ere ekin zion. Literatur lehiaketak antolatu zituen, euskara esko-

letan irakats zedin saiatu zen, euskara neurtzeko azterketak prestatu eta burutu eta bertsolari-txapelketak antolatu zituen. Euskaltzaindiaren erabakiak argitaratzeko *Eusker* aldizkaria sortu zen. Espainiako gerra zibilak eta Mundu-Gerrak eragin handia izan zuten, euskaltzainak sakabanatu egin baitziren. Azkueri euskaltzain-taldea berpizteko eskaria egin zitzaion, baina Azkue zaharra



manikoen jokamondeetatik. Egungo euskarak, hiztegi aldetik, badu jatorrizko protoeuskaratik dator- kion alborrik, baita, ugari eta aberats, mendeetan zehar ondoan auzoko izan dituen hizkuntzetatik iritsi zaion mailegurik ere: mailegu iberiar, indoeuropar eta zeltak, batzuetan, eta latinetik (lehen erromatartzetik nahiz geroko kristautzetik etorriak) edo ondorengo erromantzetatik hartuak (gaskoi, Erdi Aroko gaztelania eta abarretatik).

**Historia eta egoera.** Euskaldunen hizkuntza izen- datzeko Euskaltzaindiak onartuta duen izena "eus- kara" da, eta funtsean, aldaerak izanik ere, izen bat bera eta bakarra izan du hizkuntza honek euskaraz. Antzinate zaharretatik hasita, hizkuntzaren historialariek "Euskal Herri" bezala aipatu ohi den honetan euskaldunen herria eta hizkuntza elkarre- kin batera ikusi izan dituzte. Hau da, euskal etnia- ren hizkuntza propiokat hartu izan da euskara, eta hemen (euskaldungoak gaur egungo Euskal Herri honen inguruan garai batean zituen lurraldeetan) bakarrik ezagutu da hizkuntza hau, nahiz eta lurralde horiek mendeetan zehar joanetorri naba- riak izan zituzten. Hizkuntza indoeuroparek men- debaldea estali aurreko hizkuntza bakarra da Euro- pan; beraz, K.a. 2000 urteetan inguru hauetara eto- ritako herri eta mintzaira indoeuroparren aurreko- da, hemengo bere jatorrietan. Euskararen jatorri- genetikoa oraindik ere eztabaidakizun da, eta jakit- unek aurrera segitzen dute ikerlan berriekin araz- oaz argitu nahirik. Erabilitako hipotesietan bat bera ere ezin da guztiz frogatuztat eman, ez eusko-ibe- rismoa, ez eusko-kaukasismoa eta ez bestelako iri- tziak ere (berbere, hizkuntza amerikarrena, etab.). Jatorri genetikoa argitu ez bada ere, giza historiak arruntki berekin dituen harremanen ondorioz, eus- kara ez da hizkuntza isolatua izan. Gogora dezagun Antzintean hiztun-multzto eusko-akitarian zabal- a izan zuela euskarak; oro har Ebro ibaitik Garona

ibairaino eta Pirinioetan Kataluniako lurretaraino zabaltzen zena. K.o. lehenengo milurtekoan, eremu horrek I-an eta Pirinioetan atzerakadak izan zituen, baina Errekonkistarekin eremu berriak irabazi zituen Ebrotik H-rantz (Errioxan eta Burgosen). Euskal lurraldearen azken galera historiko nabari- nak Araban (XVIII. m.an) eta Nafarroan (XIX-XX. m.) gertatu dira, industri iraultzaren osteko bar- neagokoak ahanzi gabe (Bizkaia, Gipuzkoa, Ipa- rralde). Euskarak inguruko hizkuntzekin milaka urteko harremana izan du; hasieran Iberiar penin- tsulako eta gaur egun Frantziari dagokien lurralde- ko hizkuntza indoeuropararrekoekin. Kristau Aroa hastean, erromatartzeak eta kristautzeak eka- rri zuten latinarekin eta, handik berehala, Erdi Aroko erromantze jaioberriekin (okzitaniera/gas- koi, aragoera edo nafar erromantze eta gaztelania- rekin). Aro Moderno-Garaikideetan, auzoko lehia- kide zailenak frantsesa (geroago hurbildua) eta, berriz ere, gaztelania ofizialduak izan dira. Berriki- tan ezik, euskarak ez du izan historian (bere osota- sunean bederen) legezko aitortpen ofizialik. Neurri- batean Eliza katolikoak hartu zuen bere pastoral- lanetarako, Iruñeko zenbait agiritan eta Kalagorri- ko Arau Sinodaletan ikus daitekeenez (1600, 1621, 1700). Lehenago, Gaztelako Fernando III.a Santuak ere ezagutu zien Errioxa Garaiko euskaldunei (Oja- castroko herritarrei, 1239) erret epailearen aurrean euskara erabiltzeko eskubidea. Euskara bera aipatu gabe ere, Nafarroa Behereko Forua da Euskal lege oinarritzakoena euskaldungoari hizkuntz eskubideak aitortzen. Alderantziz, ofizialki ez zuten aukera bera izan herritar ordezkariak Euskal Herriko zen- bait Biltzarretan (Gemnikan, adibidez, 1613-33). XIX. mendeko aldakuntza batzuen ondoren, Araba, Biz- kaia eta Gipuzkoako 1936ko autonomi estatutuak eman zion lehenengo aldiz euskarari (gaztelaniare- kin batera, noski) erabilpen-estatus ofiziala. Gaur

egun, Euskal Autonomi Elkarteko autonomi estatu- tuaren (1979) eta Nafarroako foru-hobekuntzaren ondoren (1982), euskara ofiziala da Euskal Autono- mi Elkartean eta koofiziala Nafarroan. Ofizial- koofizialtasun horiek lege banatan arautu dira, gai- nera, gerotik (1982, 1986).

Euskaldungoaz, batez ere joan den mendetik honako estatistikak ezagutzen ditugu: 1866-68. urteetan, L. Velasco-ren arabera, 80.000 euskal hiz- tun zeuden Iparraldean (populazioaren % 65,04) eta 391.000 Hegoaldean (populazioaren % 50,11). Mendebeteren ondoren euskaldungoak gora egin du kopuru absolututan, baina hiztun-portzenteak herrialde guztietan nabariki behera egin dute, eta aldi berean, handik hona ia euskal hiztun guztiak elebidundu egin dira, gaztelania nahiz frantsesa ikasita. 2.884.000 biztanle dituen Euskal Herrian (1982-88ko datuak), 650.000 lagun inguru dira eus- kaldun (% 22,53). Horieta 528.000 Euskal Autono- mi Elkarteoko dira, 52.000 nafarrak eta 70.000 Iparraldekoak. 80.eko hamarkadan euskara irakas- kuntzan sartu ondoren, euskara dakiten edo zer- bait dakiten gazteen kopurua handiagotu egin da. Euskaraz egiten den eremuak zazpi Lurralde His- torikoetako azalera-erdia edo hartzen duela esan liteke, baina euskararen lurralde-mapa "sareza- tua" dela esan behar da: dagoeneko, nonahi dela ere, euskara erdararen ondoan bizilagun dela gaur egun, azken mendeko aldakuntzen ondorioz. Berandu arte aitortpen ofizialik ez izateak, eta batez ere XIX. mendetik hona hizkuntz funtzio sozialen garapen moderno eta biziena beste hizkuntzetan gertatzeak, euskarak gizarteko zenbait funtzio- -esparrutarako hiztunik ez izatea ekarri du: irakas- kuntza, administrazioa, komunikabideak, aisia, lan-mundu moderno, etab. oso berandu, eta gai- nera zatika, ari dira euskalduntzen. Egoera osoari dagozkion datuetan (hiztun-kopurua, hizkuntz

ohitura eta jarreak, etab.etan) erabateko aldakuntzarik ez dago. Beraz, euskara oraindik desagertze-ko, hau da, bera inguratzeko duten bi erdara ahal-tsuak ordezkatu izateko arriskuan dago. Hala ere, azken hamarkadetakoa hobekuntzak oso gozoko hartzeak dira. Hona adibide batzuk euskal liburuaren edizioak 23tik (1960) 828raino haztu dira (1990): ikastolen mugimendua sortu, ugaldi eta garatu egin da; hainbat ekimen pribatu nahiz publiko bidez (Argia, Euskadi Irratia, Euskal Telebista, Euskaldunon Egunkaria, ...) indartu egin da euskararen tokia komunikabideetan; euskalduntze-alfabetatzearen mugimenduari esker (AEK, HABE, ...) euskaldun asko euskaraz irakurtzen eta idazten trebatu eta erdaldun asko euskaldundu egin da (euskaldunberrien fenomenoak); euskarak zientzia eta teknologiaren arloetarako jantzi eta egokitu egin da (UZEL, Udako Euskal Unibertsitatea, Elhuyar, unibertsitateak, ...), etab. Hizkuntzarekiko zientziakito jakiteak ere irabazi egin du: XIX. mendeko jakinetatik hasita (Humboldt, Bonaparte, Van Eys, Schuchardt, etab.), XX. mendean belar-naldi berriak ere gehiago aberatu dute euskalari-tza (Azkue, Urkixo, Lafon, Bouda, Mitxelena, ...). Orain, Goi-Ikastetxe desberdinetan areta handi-goz begiratzen zaio hizkuntzaren ikerkuntzari eta euskal filologia unibertsitatera iritsi da. Euskaltzaindiak ere lan-egitarau zabalago eta antolatua-goa du, hizkuntzaren iraganari eta geroari so (atlasa, gramatika, lexikografia, etab.). Modernizazioak eskatzen duen "corpua" lantzen ari dira, denak ere. 1960ko hamarkadaz geroztik, hizkuntzari zegokion normalkuntza soziala irabaztearen, Euskaltzaindiak eta euskaltzalegoak hizkuntza estandarra ("euskara batua") finkatu eta zabaldu nahi izan du. Berorren definizioa batez ere 1968tik hona egin da, euskalki mintzatu eta idatzien gainetik hizkera amankomunari gero eta "corpua" osoagoa moldatuz. XX. mendeko azken hiru hamarkadetan, euskaltzale eta euskal mintzatzaleak, eztabaida eta zalantzen artean, modernizazioaren egokiera historikoa bizitzeko ari dira, bai hizkuntzaren bamean, bai gizartearen.

**euskarakada.** iz. Erdaraz egitean esaten den euskarazko hitz edo joskerak. *Euskarakadaz betetako, jositako erdara.*

**euskarapen.** iz. Euskaratzearen ekintza eta ondorioa.

**Euskararen Gaitasun Agiria (EGA).** Euskararen gaitasuna azaltzen duen agiria; Euskaltzaindiak sortua (1980-81). Ohizko lau hizkuntz trebetasunen jabe izan behar da agiriaz jabetzeko. 1982.az geroztik Euskal Autonomi Elkartean, Hezkuntza-Sailaren kompetentzia da, baina Nafarroan eta Iparraldean Euskaltzaindiaren esku dago.

**euskara(tu).** du ad. Euskarara itzuli, euskaraz eman. *Latinetik euskaratua. Hitzez hitz euskaratua.*

**euskaratzale.** iz. Euskaratzen duena. *Hitzazurrean euskaratzaleak ditona.*

**euskaritzo.** iz. Poesi lanetan, errepikatzen den ahapaldia, errepika.

**euskarri.** iz. 1. Zerbaiti eusten dion gauza; zerbaiti finkotasuna ematen dion oinarria, funtsa. 2. Edozein objektuk berari eusteko egokitu duen alderdi edo zatia. 3. HIZKIL. Epentesia. 4. INFORM. Sistema informatizatu bateko informazioa fisikoki jasotzeko gai den edozein elementu. *Euskarri magnetikoa.* 5. KIM. Erreakzio batean, substantzia aktibo bat gainean ipintzen zaioneko substantzia geldoa.

**Euskaldun Batzokija.** Sabino Aranek sortutako euskal etxea (Bilbo, 1894). Jolas-elkarte moduan sortu zen, baina EAJ alderdi politikoa bertan sortu zen. Bizkaiko Gobernadore Zibilik Espainiarentzat arriskutsua zela argudiatuta itxi egin zuen (1895). 1897an desegin zen.

**euskera.** Ik. euskara.

**Euskera.** Euskal aldzakaria, Euskaltzaindiaren lan eta agiriak argitaratzen dituen (Bilbo, 1919). Gaur egun urtean hirutan argitaratzen da.

# EUSKERA

Euskarazkidearen lan eta agiria  
Trabaja y acta de la Real Academia de la Lengua Vasca  
Travaja et acte de l'Académie Royale de la Langue Basque



ZIENTZI ETA TEKNIKA ALORREKO  
HIZTEGI BATI BURUZ

Mikel Zabide

(Saperate)

Euskera XXIV (2. aldiz)  
(1979) 1  
74  
BILBO

## Euskera aldzakaria

**Euskerazaintza.** Euskararen herri-akademia, Euskaltzaindiaren irizpideekin bat ez datoz-nek sortua Tolosan 1986an. Agustín Zubikarai izan zen bertako lehendakari (1986). Izen bereko aldzakaria argitaratzen du (1986); bertan, Euskaltzaindiak batasunerako emandako irizpide ortografikoekin bat ez datozenen artikulak argitaratzen dira. 1987az geroztik A. Zubikarai da aldzakari honetako zuzendaria.

**eusko.** iz. (neol.) 1. Euskal herritarra. *Euskal Herri maitea, euskoen etxea.* 2. (Euskalen orde, hitz-elkarte batzuen lehen osagai gisa) Euskal Herriari dagokiona. *Eusko gudaria. Eusko Alderdi Jeltzalea. Eusko Jaurilaritza. Eusko trenbideak.*

**Eusko Abertzale Ekintza (EAE).** Euskal Herriko alderdi politikoa, EAJko partaide progresistek alderdia utzi eta sortutako alderdi berria (1930-XI-30). Anacleto Ortueta, Tomas Bilbao eta Justo Garate izan ziren sortzaileak. Akonfesionalak, errepublikar demokraziaren defendatzaileak eta erreforma sozialaren alde agertu ziren; programa politikoan, sozial-demokrata itxurako helburuak onartu zituzten (1936). Lehen Euzko Jaurilaritzako partaide izan zen. Gerra ondorengo urtetan oso ahulduta egon ondoren, berpiztu (1975) eta Herri Batasuna koalizioan sartu zen.

**Eusko Alkartasuna (EA).** Euskal Herriko alderdi politikoa, EAJ alderdiaren zatiketarik sortua (1986), Karlos Garaiketxea da sortzaile eta lehendakaria. 1987an alderdiak onartutako estatutuen arabera alderdi abertzalea, demokratikoa, herritarra, akonfesionala eta progresista da. Indarkeria politikoaren kontrako, autonomi estatutua azken erabakietaraino aplikatzearen aldekoa eta Euskal Herriaren autodeterminazio-eskubidearen aldekoa da. Euskal Herriko hainbat udal-tan independentziaren aldeko adierazpenak egin eta erabakiak hartu ditu. Euskal Ezkerra alderdiarekin batera aurkeztu zen 1993ko hautes-

kunde orokorretan. Ipar Euskal Herrian ere antolatuta dago.

**Eusko Ikaskuntza (EI).** Euskara, euskal kultura eta zientziaren inguruko ekintzak antolatu asmoz sortutako elkarte (Oñati, 1918). Luis Lucien Bonaparteren ekimenez antolatutako ekintzak Eusko Ikaskuntzaren hastapentzat hartzen dira (Baiona, 1857). Anjel Apraizek euskal kultura bultzatzeko, jakintzagai desberdinak bilduko zituen ikastaro edo unibertsitate bat sortzeko premia ikusi zuen. Horrela, ideologia eta jakintza-arlo desberdinetako jendea bildu, eta Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako Diputazioak egitasmo horretara batu ziren. 1921ean RIEV elkartearen aldzakari ofiziala argitaratzean ekin zioten. Primo de Riveraren diktadura bitartean bere iharduera eten egin behar izan zuen; baina gero beregin egin zen eta euskal autonomi estatutuaren garapenean eragin handia izan zuen. Bergaran eginko biltzarrean, estatutuaren oinarriak eratzeko batzordea antolatzea erabaki zuen (1930). Lizarrako Asanbladan onartu zen testua Eusko Ikaskuntzako batzordeak eginkoa zen (1931). Gerra Zibilaren ondoren, Ipar Euskal Herrian segitu zuen lanean. Hiru biltzar burutu zituen, Mirrirtzen 1948an eta Baionan eta Uztaritzen 1954ean. Hego Euskal Herria itzuli eta bide berriari ekin zion. Barandiaran izan zen bigarren aldiko elkarte honetako lehendakaria (1978-91) eta beronen ondoren Goio Monreal (1992). Aldizkari eta liburak argitaratu, ikerketarako dirulaguntzak eman eta era askotako kongresu, ihardunaldi eta topaketak antolatzen ditu.

**Eusko Jaurilaritza.** Euskal Autonomi Elkarteko erakunde administratibo eta betearazle goren, autonomi estatutuaren ondorioz sortua. 1936an Espainiako Errepublikako gobernuko Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarako autonomi estatutua onartu ondoren sortu zen (1936-X-7). Behin-behineko izaeraz eratu zen, gerra egoera zela eta. Alkatek lehendakaria hautatu zuten: Jose Antonio Agirre. Gobernu EAJ, PSOE, EAE, Ezkerreko Alderdi Errepublikarra eta Batasun Errepublikarra alderdiakordekariak osatu zuten, anarkistek parte hartzeari uko egin zituelarik. Jaurilaritzaren helburuak, erlijio-askatasuna, gobernuaren menpeko agente militarren sorrera, euskal polizia sortzea, legeria sozial eta aurrerakoa egitea, maila guztietan euskararen irakaskuntza bultzatzea, euskaldunen berezitasunak babestea eta frankisten esku zeuden euskal lurraldeak berreskuratzea izan ziren. Gerra Zibilik hartutako norabidea ikusirik, geman parte hartzea erabaki zuen: soldaduak mobilizatu, uniformeak banatu eta behar zuten gutzia militarizatu zuen (ospitaleak, erizainak). Frankistek Bilbo hartu zutenean Jaurilaritzak Santanderrera ihes egin zuen eta gerrari amaiera eman zion Santoñako ituna sinatu zuen (1937-VIII-25). Ondoren erbestera eta euskal errefuxiatuei babesa eta laguntza eman zuten (1937ko azaroa). Gero Frantziara pasa zen. Geroztik, gobernuakideak han eta hemen ibili ziren Europako gerrak ez zuelako laguntzen. Bigarren

## LEHENENGO EUSKO JAURLARITZA

Lehendakaria	Jose Antonio Agirre (EAJ)
Defentsa-kontseilaria	Jose Antonio Agirre (EAJ)
Justizi eta Kultur kontseilaria	Jose Maria Leizaola (EAJ)
Hazienda-kontseilaria	Heliodoro de la Torre (EAJ)
Gobernazio-kontseilaria	Telesforo Monzon (EAJ)
Merkatal eta Hornidura-kontseilaria	Ramon Maria Aldasoro (EAJ)
Osasun-kontseilaria	Alfredo Espinosa Oribe (UR)
Industri kontseilaria	Santiago Aznar (PSOE)
Lan-, Aurrikuspen- eta Komunikazio-kontseilaria	Juan de los Toyos (PSOE)
Asistentzia Sozialerako kontseilaria	Juan Gracia (PSOE)
Nekazaritza-kontseilaria	Gonzalo Nardiz (ANV)
Lan Publikoetarako kontseilaria	Juan Astigarribia (PC)